

BERE SEME BATEK

DONOSTIARI.

POESIA SEÑALADA CON MENCIÓN HONORÍFICA EN LOS JUEGOS FLORALES
DE SAN SEBASTIAN DE 1883.

Ameriketean neukan denboran
osasanako pobreza,
ongi jartzea gatikan nuben
egin Lezo-ra promesa;
aginde ura etzalarikan
kunplitzen oso erraza,
noiz bait etorri naizda entzun det
Lezo-ko eleizan meza.

Au dala bide allegaturik
Donostiako errira,
non nabillenik ezdakitala
eman det guztian jira;
lendabiziko jarri naiz zarra
deritzonari begira,
neretzat onen echeak ere
goienak berriak dira.

Ikuste batez arkiturikan
ezin esan ainbat grazi,
segiduban naiz bere eskiña
guziak miratzen azi;
jbañan zer pena alde batera!
non bait ez dirade bizi!
erri guztian ez ditut amar
lagun lengoak ikusi.

Ez det billatu non dan ni jαιο
nintzan olezko barraka,
au zan tokiak bere gañean
eche eder bat baidauka;
kaleak ere lendik onera
izen trukatuba dauka,
nere jαιο ta bizi lekubak
lengo antzikan ez dauka.

Alde batera senti det poza
bestera berriz det pena,
ikusi gabe eskutatzea
nere jaioterri lena;
gaur iruri du uso churi bat
itsas gañean dagüena,
ego ederrak zabaldurikan
egan joan bear dubena.

Ez dira lengo murru kopeta
beltz itsusiak ikusten,
beren lekuban zer ibiltoki
ederrak egin dituzten;
aiek etzien usochoari
egak zabaldutzen uzten,
zori onean arrazetikan
guziak kendu zituzten.

Oez kanpora ikusten dira
 milla bat eche berriak,
 beren artean, Jauregi-echeak¹
 diruritenak erdiak;
 kaleak eta plazak ederrak
 dendak begiragarriak,
 ametsetako gauza bat dala
 diruri nere erriak.

Eche aundi ta ederrak egin
 baldin badira ugari,
 ez dira ere eskasagoak
 egiten diranak ari;
 beste askoren artean plaza
 Gipuzkoan da bat ageri,
 jendea prankok begiratuko
 diona bere lanari.

Pauso lekubak ederrak daude,
 politak lore tokiak
 ur-amilde ta iturrihoak
 nola chabola chikiak,
 oekin argi-oin burnizkoak
 soñu leku ta alkiak,
 begiragarri jartzen ditula
 gabaz chimistki² argiak.

Uztai urrezko baten erdian
 dauka itsaso urdiña
 bere grazia ederraz biltzen
 diona zorion diña;
 perla polit au dago Zeruko
 eskiñ batean egiña,
 itz batez, au da mundu zerubak
 elkartzen diran eskiña

Emazteari segiran bear
 diot nik adierazi,
 etor dedilla Donostiara
 bere pamili ta guzi;
 ez det au bañan toki oberik
 Indi guzian ikusi,
 ez nua berriz Amerikara,
 emenchen bear det bizi.

Erririk graziz orniturikan
 iñon arkitutzen bada,
 beretako bat gure Probinzi
 Gipuzkoan Donostia da;
 lurrak gañean jaso lezaken
 politenetan bat bada,
 aurrera ere dan bezin polit
 gorde dedilla albada

EUSKALDUN BAT.

(1) Palacios.—(2) Luz eléctrica.